



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

9. Alea 1997ko Maiatza



EGUN BOROBILA IKASTOLAREN OMENEZ

VIAJES

alpinatour
mucho más que una AGENCIA

Bidai Agentzia

MALLORCA: BILBOTIK EGAZKINEZ 7 gau, **35.700** %50ko beherapena lagunarentzat

TENERIFE: BILBOTIK EGAZKINEZ 7 gau, **56.200** %30ko beherapena lagunarentzat

CUBA: MADRILETIK EGAZKINEZ Joan etorria bakarrik **69.900**

Apartahotela *** (7 gau) **76.500**

PRAGA 4 egun 62.900

TUNEZ 4 egun 37.600

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:
AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa.

Kolaboratzaileak: Karmelo Oñate, Ander Zabala, Iñaki Agiriano

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1700 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

ENRIKE IGLESIAS ARZABURU "TXABOLAS"

Futbitoko antolatzailea

1- Noiztik zaude E.K.E.n antolaitzale?

Azkeneko 2 urteetan.

2- Ze kirol egin duzu antolatzaile izan arte?

Sokatira eta futbola.

3- Gogoratzen ditu zenbat urte daramatzen futbito txapelketak?

Hogei bat, gutxi-gora-behera.

4- Zenbat urtetan hartu duzu parte? Ze ekipotan?

Azkeneko 17 urtetan.

Galtzerdiak, Kokos, Alkazar, Tizkiño, Mirentxu, Zarauztarra .

5- Aurten ze ekipok irabaziko du futbito txapelketa?

Alkazar taldeak.

6- Ligan zein geratuko da lenenago Erreala edo Athletic? Biok UEFARA?

Erreala

Biok joaten badira hobe.

7- Zer iruditzen zaizu kiroletxe berria?

Kantxa asuntoa oso ondo, eta ea nola geratzen den sauna, igerilekua eta ...

8- Zein aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?

Kasu gehiago egingo nieke kirolei.

9- Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?

Oso ondo dago.



Cuenta Joven
 de Caja Laboral
 El servicio
 más completo.

**Euskadiko Kutxaren
 Kontu Gaztea.
 Zerbitzuetan
 osatuena.**


CAJA LABORAL
 EUSKADIKO KUTXA





LENIZ
 ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
 Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

MENDI MARTXA

Eskoriatzako mendizale guztiek zita garrantzitsua daukate ekainaren 22an, egun horretan ospatuko baita **Hildako Mendizale Eskoriatzar guztien omenezko 1go mendi martxa erregulatua**. Eskoriatza K.E.-ko Mendi Saileko kideak eta beste asko jo eta ke ari dira lanean egun horretarako prestakuntzan, ez baita lan txikia hartu dutena! Ibilbideak 8-9 orduko iraupena izango du eta Eskoriatza inguruko mendietatik egingo du buelta. Apuntatzeko edo laguntza eskaintzeko (beharko da eta) deitu Namaste edo Eskoriatza K.E.-ra). Animo bada, eta has zaitezte denok zango eta buruak berotzen. Ibilaldian parte hartzeko **500 pezeta** ordaindu beharko dira. Izen ematea Eskoriatzako Mendi Taldearen egoitzan (**Olazar 8 behe eskuma. Telf: 714620**). Ekainaren 9tik 13ra eta 16tik 20ra arratsaldeko 7etatik 9etara edota ibilaldiaren egunean goizeko 6tatik 7'30ak bitarte.



UDALETXEKO ALDAKETAK

Eskoriatzako HB-k konbokatutako txarla informatiboa izan zen Kultur Etxean apirilaren 28an. Bileraren helburua komisiotan gertatutakoa esplikatzeko zen. Dei honetara 40 pertsona inguru agertu ziren. Bertan kontatu zenez alkateak bere kabuz hartutako erabaki bat izan zen HB-ko zinegotziak komisiostatik kentzea, presupuestoetako plenoan gertatutakoaren ondoren. Gogoratu pleno honetan HB-koek plenoa konbokatzeke era eta momentua egokiak ez zirela adierazten zuen nota bat irakurri eta alde egin zutela. Alkateak, haserreturik, komisiostatik kanporatzea erabaki zuen, beste talde politikoak kontra bazeuden ere.



ALKATEAREN IRITZIA:

Alkatetzaren fakultate bat da batzorde informatzaileetako lehendakariak izendatzea. Epe muga konkretu baterako eta nire fakultatea erabiliz pertsona batzuk izendatzen badituz ardua hori eraman dezaten, modu leialez lana egingo dutelako eta era berean beraien kriterioak eta pentsatzeko moduak Udaletxeak dituen foru desberdinetan aurkeztuko dituztela uste dudalako egiten dut.

Alkatearen hitzak eta egintzak dudan jartzea, aurtengo aurrekontuan Ogasun batzordeko lehendakariari egindako adar jotzea, aurrekontuak onartzeko plenotik alde egitea... eta horrelako beste zenbait ekintzen bidez, uste dut beste batzordeburuekiko eta Alkatearekiko leialtasun falta adierazten dela, eta era berean erantzunkizun falta bat iruditzen zait aurrekontuei buruzko pleno berri batean era berdinean ihardungo luketeela esatea, hau da, plenora etorri eta ondoren, plenoko gaiak tratatu eta eztabaidatu barik, plenoa uztea..

Momentu honetan eta beraien jokaera aipaturiko printzipioen aurkakoa izan dela ikusita, udal gobernuko erantzukizunetik txandatu beharrean izan naiz, zeren eta aipatutako ekintzek konfidantza hori galtzera eraman bainaute.

Argi utzi nahi dut nire ekintza honek ez lukeela ezusterik sortu behar batzordeetako lehendakari ohien artean, zeren eta azken urtean 2 bilera izan ditut beraiekin ekiteko forma edo modu horrekin konfidantza galduko zutela adierazteko eta gainera euren bozemaileari hartu behar nuen erabakiaren berri eman nion, euren iharduteko modua aldatzeko denboraz zeudela adierazi nion eta bere erantzuna izan zen Asanblada Lokalean hartutako akordioak bete beharrean daudela eta "arrieros somos y en el camino nos encontraremos".

A & B
aholkulariak

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
LAGUN-ARO ASEGUURUAK**

ALDETEC



----- **TASAZIOAK**
----- **PERITAZIOAK**
----- **PROIEKTU ING.**
----- **OBRA ZUZENDARITZAK**
----- **ERREFORMAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540 ESKORIATZA**

Gastañadui, 7 - bajo

JOSE ARANA-ALMEN



Gatzagako talogileek laguntzaile ugari behar izan zuten. Taloak egin ahala jaten ziren eta.

IKASTOLAKO JAIALDIA



Plazan egindako azokan eskoriatzarren artisautza lanak eta produktuak ikusi ahal izan genituen. Ez zen animaziorik falta izan dantzarien aldetik ere. Kultur etxean ikastolaren sorreran parte hartu zutenei omenaldia egin zitzaien.



Ikastolaren inguruan izan zuten umeek euren jolaslekua.

ZOKETAREN IRABAZLEAK

- 1.- 1826 Ohiana Morales
- 2.- 2481 Maria Elena Biitoriano
- 3.- 6712 Eli Izagirre

IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

ESKO Sport



txandak
zapatilak
mendiko botak
aerobic
futbola
txirrindua

Intxaurtxueta 5
20540 Eskoriatza
Tel. 71 52 96



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20



Bazkaltzeko 600 lagun pasa bildu ginen Eskoriatzako frontoian. Aspaldian ez dugu horrelako jendetzarik ikusi bazkari herrikoiei batean.



Bazkal ostean bertsoarien saioa izan zen. Apotzarrak eurak.



Bertso saio ondoren, iragarritako sorpresa etorri zen. Ikastolako ikasle ohi talde batek umeen kanta-sorta bat eskeini zигun, Eli andereñoaren laguntzaz. Jendeak barre ugari egin zuen hauen kontura, eta baita abestu ere.



Pilotalekuko bazkariari bukaera emateko dantzaldia egon zen. Denok ere izerditan blai bukatu genuen.

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

**CENTRO ÓPTICO
ESKORIATZA**

Eduardo Gorosarri
Plaza, 1 bajo
Tf 71 52 82



TOKI ALAI

Taberna
Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 715046

HERRI URRATS

Hasi dira aurte ere ikastolen aldeko jaiak eta beti bezela euskera zabaltzeaz gain ondo pasatzeko gogoaz joan ginen eskoriatzarrok Herri Urratsera. Ze Barri?kook helikoteroa alokatu genuen argazkia ateratzeko.




INTSUMISOEN EPAIKETAK

Beste bi intsumiso eskoriatzarrek berriz egin behar izan dute Donostiako epaitegira bisita. **Garikoitz Kortazar** hilaren 12an eta **Iban Diaz de Gereñu** 15ean izan ziren epaituak, eta bientzat 6 hilabeteko kartzela eta 10 urtetako inhabilitazio zigorrak espero dira.

JUAN MARI IRIGOIEN ETA IÑAKI ZABALETA IDAZLEAK EUSKALTEGIKO IKASLEEKIN

Udal Euskaltegiko ikasleek Juan Mari Irigoien eta Iñaki Zabaleta euskal idazle ospetsuak ezagutzeko aukera izan zuten. Euskal Idazleen Elkarteak antolatutako "Idazleak Ikastetxeetan" programaren barruan bi idazle hauek euren liburuen berri eman zieten ikasleei. Izan ere, euskaltegiko talde batek Juan Mari Irigoien "Babilonia" liburua irakurri eta aztertu du eta beste batek Iñaki Zabaletaren "110. Street-eko geltokia". Juan Mari Irigoien apirilaren 29an izan genuen euskaltegian eta maiatzaren 6an Iñaki Zabaleta. Euren jakinahiak eta kezkek galdetzeko eta bi idazle hauekin solasaldi polita izateko parada ederra izan zuten ikasleek.



THARDUN MULTIMEDIA

Eskoriatzako-Irakasle Eskolako "Thardun Multimedia"-k euskara ikasteko CD-ROM bat kaleratu du, "Irakaslea I" izenarekin. CD-ROM honek hizkuntzak irakasteko medio digitalen arteko sari garrantzitsua irabazi du Madrilgo Expolinguan. Beraz, ordenadore bat eta euskara ikasteko gogoia baduzue, badakizue zer egin.

FUTBITO TXAPELKETA

Otsailean hasi zen txapelketa. Partiduak larunbatetan Luis Eceizan eta igandeetan kiroletxean jolasten dira. 10 jardunaldi igaro ondoren, lehen 8 postuak, bigarren fasea jokatzeko baliagarri direnak, badirudi nahiko argi daudela. Talde gehienak Eskoriatzakoak dira.



TALDEAK PUNTOAK

1º ALKAZAR 18

2º HI TXO 17

3º PROYECTO GIL 15

4º MATRUKO 15

5º SALTRAPRAUS 14

6º POINTAX 14

7º ODOL GUTXI 12

8º YOU KNOW 12

9º TUPAKAMARU 9

10º YUGOPLASTIKA 8

11º NEGAR GORRIAK 8

12º NO TIRES FUERTE 6

13º BATZ KIMIL 6

14º YEVASTISEN 3

15º CIEN POLVORONES 3

AITZORROTZ

Aitzorrotzko egun bezperan "Akelarrea" antolatu zen aurreten lehenengo aldiz. Argazkian ikusten denez surik ez zen falta izan.

AKEITA

TABERNA

5etatik zabalik

Tfnoa.: 715094


KAFE, PINTXO eta BOKADILOAK

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

fundazioa
fundación



BEKAK:

- "La Caixa" Fundazioak, Estatu Batuetan eta Britainia Handian 98-99 ikasturerako **graduosteko ikasketak** osatzeko bekak kaleratu ditu. Epea: ekainak 27.
- Hezkuntza eta Kultura Ministeritzak, **dantza, musika eta lirika arloan** beka ezberdinak antolatu ditu, bai produktio mailarako bai bira ezberdinak egiteko. Epea: ekainak 9.
- Hezkuntza eta Kultura Ministeritzak, 98-99 ikasturtean Estatu Batuetan **ikas-keta artistikoak** osatzeko bekak aurrikusi ditu. Epea: uztailak 17.
- Eusko Jaurilaritzak, Euskal Autonomi Elkarteko eta Erresuma Batuko **iker-tzaileen arteko elkartrukaketak** finantziatzeko dirulaguntzak aurrikusi ditu. Epea: irailak 15.
- Osasun eta Kontsumo Ministeritzak irekia dauka **Europako Batasuneko edo Iberoamerikako herrekin elkar-trukea** burutzeko beka deialdia. Epea: urte osoan zehar irekia.
- Leonardo Bekak: Unibertsitateko ikasketak burutzen edo bukatu berriak izanik, sekula enpresetan praktikak egin ez dituztenek **Europako Elkarteko enpresetan praktikak** egiteko aukera ematen dutenak.

UDAKO IKASTAROAK

EHU-UPVk udako ikastaroen programa plazaratu du. Izena emateko epea, maiatzak 8an hasi eta matrikula kopurua bete arte izango da.

DIPUTAZIOKO UDAKO EKINTZAK

18-29 urte bitateko gazteentzat, kirol abentura Huescan, Leridan, mendi trabesia Aiguestortesén, Iparraldea mendi bizikletaz, ingeles egonaldiak Seguran, ... Inskripzio epea: ekainak 2tik 27ra, Arrasateko Gazte Bulegoan.

LANA

- Donostiako Udalak, lanpostu batzuk bete nahi ditu: trafikoko laguntzile teknikoak, kartografi digitalizazioko teknikaria, administrazio eta idazkaritzako arduraduna, kultur etxeko arduraduna, argibide, orientazio eta dokumentazioa/enplegurako goi mailako teknikaria, trafikoko goi mailako teknikaria, bideetako ingeniaria, industri ingeniari teknikoak eta erdi mailako trafiko teknikaria. Epea: deialdia EBOan argitaratu zain gelditzen da.

- Galdakaoko Udalak arkitekto bat behar du. Epea: EBOan argitaratu zain geratzen da.

LEHIAKETAK

- **San Juan Jaietarako** aterako diren **kamisetatarako marrazkia** aukeratzeko lehiaketa. "Geu gara garra" lema eta "San Juan Jaiak 97" testua idatzita agertu behar dira. Zuri-beltzean, formato librea. Lan Guztiak sarituak izango dira. Bozetoak aurkezteko azken eguna: ekainak 2.
- Bergarako Jardunen eskutik, **V Komimi Lehiaketa** antolatu da. Lanak aurkezteko epea: ekainak 6.
- Estatuko Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministeritzak, **arrazakeria gaitzat hartuta, argazki lehiaketa** antolatu du. Epea: ekainak 9.
- Eusko Jaurilaritzak, **Enpresak Sortzeko Gazteentzako XII. Ideia Lehiaketa** antolatu du. Epea: irailak 19.
- **Zumarraga eta Urretxuko Udalek**, urteroko lehiaketak antolatu dituzte, modalitate ezberdinetan: Narratiba eta poesiako Iparragirre Saria, pintura, komiki, bertso paper eta argazki lehiaketa. Epea: irailak 26.
- **"Imajina ezazu Euskadi" X. Ekitaldia**, ipuinak, margolaritza, argazkigintza eta poesia modalitateetan. Epea: irailak 30.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATERAKO LAGUNTZAK EMATEN DITU ESKORIATZAKO UDALAK

Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak **Baionan** izango dira **uztailaren 7tik 12ra eta Iruñean uztailaren 14tik 26ra**. Parte hartu ahal izateko matrikula-epea zabalik egongo da ekainaren 2tik 30era eta ordaindu beharreko prezioa ikastaroaren iraupenaren arabera izango da. EHUK eta UPNAK hautaketa libreko kreditu moduan onartu dituzte ikastarook. Eskoriatzako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, 1997. urte honetan Udako Euskal Unibertsitatean parte hartuko duten Eskoriatzarrei laguntzeko dirulaguntzak jartzea erabaki du. Hori dela eta, ikastaroa egiteko ordaindu beharko den **matrikula kostuaren %25a emango dio Udalak eskoria-**

tzar partehartzaile bakoitzari. Dirulaguntza eskariak uztailaren 11 baino lehenago aurkeztu beharko dira Udal Bulegoetan. Informazio gehiago Udaletxeko Euskara Zerbitzuan edo 71.44.07 eta 71.45.32 telefonoetara deituz.

EZKONTZAK

- 1997ko apirilaren 19an **Gaizka Gisasola Uribe-Etxebarria** barakaldoarra eta **Jone Arkauz Arenaza** eskoriatzarra ezkondu ziren Mendiolan.
- 1997ko maiatzaren 17an **Enrique Iregui Villar** eta **Leonor Del Pozo Martín** eskoriatzarrek ezkondu ziren Mazmelan.
- 1997ko maiatzaren 24ean **Juan Ramón Miguel Martínez** eta **Nekane Quintas Suarez** aretxabaletarrak Eskoriatzako Udaletxean ezkondu ziren.

ZORIONAK GUZTIOI**JAIOZKAK**

Unai Echebarria Diaz de Guereñu	apirilaren 4an
Ibai de Pablo García	apirilaren 18an
Aitzol Zubizarreta Cruceta	apirilaren 21an
Ione Uriarte Iñurrategi	maiatzaren 3an
Miren Zubillaga Zubiete	maiatzaren 12an
Aitzol Eraña Cabera	maiatzaren 15an
Iñaki Aiestaran Villar	maiatzaren 24an
Mikel Murillo Mateo	maiatzaren 19an
Iñaki Santamaria Moreno	maiatzaren 23an
Amaia Zabala Candelario	maiatzaren 12an

ZINE GOMENDIOA**"Secretos del corazón"**

Ume baten bizitza eta arazoak kontatzen ditu, bere ikuspuntutik ikusita. Edozein lekutan gerta zitekeen istorio arrunta da. Arrunta denez, haurrekin (haien ikusmolde eta ikuspuntuekin) primeran pasatzeko modukoa da.

"Smila, Misterio en la nieve"

Hasieran eta bukaeran Groenlandiari buruzko imajina politikak ditu pelikula honek. Honetaz aparte, motel samarra eta intriga barikoa dela esan daiteke.

"El Santo"

Filme honetako protagonistak elkarlotzen diren bi istorio bizi ditu: errusiako mafiarekiko "desafio" bat eta ikertzaile gazte batekin daukan harremana. Protagonistaren moztortzeko gaitasuna aipagarria da.



**Hogitazazpi urte
pasatu berriak,
zure beharra izan du
gurean herriak,**

**orduan sartutako
lehenengo harriak,
Eskoitzan eman ditu
poztasun haundiak.**

